

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zuhaitz Gurrutxaga Loiola

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1980)*

Aurkibidea



Biografia



Aiastia (San Migel) auzokoa.
Aitaren jaiotetxean
(Berdezkunde baserrian) bizi
izan zen 3 urtera arte. Gero
Aldatz-gain izeneko etxea
egin zuten handik gertu eta
hara joan ziren bizitzera.
Ume-umetatik izan zuen
futbolerrako zaletasuna. 12-13
urterekin Elgoibarko futbol
taldean hasi zen jokatzeko
federatuta eta 14rekin
Errealean eraman zuten,
infantiletara. Umetan
ebakuntza bat egin zioten
bihotzean eta, arazo horren
ondorioz, Errealean
infantiletan zebilela,
medikuek esan zioten ezingo
zela profesional mailara pasa.
Orduan, Elgoibarrera itzuli
zen, kadeteetara. Han
zebilela, Espainiako
selekzioak deitu zion 15 urtez
azpikoekin jokatzeko.
Presentsari esker albistea
zabaldu zen eta Erreala berriz
jarri zen berarekin
harremanetan. Ordukoan,
azterketa medikua ongi atera
zen. 19 urterekin debutatu
zuen Errealearekin. 3-4 urte
egin zituen guztira. Gero,
beste talde batzuetan ibili
zen: Aljiciras, Rayo
Vallecano... Madrilera joateak
begiak ireki zizkion eta beste
gauza batzuetan hasi zen:
antzerkia ikasi, irakurri...
Gitarrarekin kanta sortzen
hasi zen eta 'Van Poppel'
izeneko taldea sortu ostean,
diska bat ere kaleratu zuen.
2010ean eman zuen bere
lehen kontzertua. Nahiz eta
32 urtera arte futbolekin
jokatzeko jarraitu, kultura
arloan ere jorratu zuen:
musika, monologoak... Azken
futbol taldea Beasain izan
zuen. Ordurako monologoak
egiten hasita zegoen. Gero,
telebistara jauzi egiteko
aukera sortu zitzaion eta
futbola utzi egin zuen.
'Tumatxak' saioa aurkezteko
eskaintza egin zioten

Zintak

EGB-076

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2015-01-29
- **Iraupena:** 82 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Oporretara penaz, lagunak auzoan geratzen zirelako

- **Erref:** EGB-076/003
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:01:24. **Bukatu:** 00:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Ume sasoia Aiastia (San Migel) auzoan. Euren ez zen baserria eta abererik ez zuten, oporretan kanpora joateko aukera izaten zuten. Auzoko lagunak eta lehengusuak, berriz, auzoan geratzen ziren, eta eurak negarrez joaten ei ziren oporretara. 14-15 urterekin Elgoibarrera jaisten hasi ziren. Eskolara ere Elgoibarrera jaisten ziren.

2. Aiastia (San Migel) auzoa; umetako jolasak

- **Erref:** EGB-076/004
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:02:33. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Aiastia (San Migel) auzoa nolakoa den. Auzoko ume guztiak, adin desberdinetakoak, elkarrekin ibiltzen ziren jolasean. Berak beti futboleak jokatu nahi izaten zuen. Ezkutaketan zebiltzanean, eremu handia hartzen zuten eta zaila izaten zen jendea aurkitzea.</p>

3. Kalekoentzat "kaxero" eta auzokoentzat "kalekume"

- **Erref:** EGB-076/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Inguru baserritarrean bizi arren, berak ez du baserriko lanekin harremanik izan eta erdibideko zerbait izan dela dio. Umetan eskolan "kaxero" deitzen zioten eta auzoan "kalekume". Ez ziren burla gogorrak izaten, baina orduan ere bazegoen kaletar eta baserritarren arteko pike-giro pixka bat.

4. Elgoibarko larunbat arratsaldeko parrandak

- **Erref:** EGB-076/007
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:06:42. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Sasoi baten Elgoibarren larunbat arratsaldeetan egoten zen giroaz oroitzapen onak ditu. Inguru guztietako gazteak biltzen ziren. San Frantzisko kalean ibiltzen ziren gehien.

5. Elgoibarko gazteen lehenengo irteera: Mutrikuko jaietara

- **Erref:** EGB-076/009
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:09:05. **Bukatu:** 00:12:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>Elgoibartarrentzat beste herri batera egiten zen lehenengo irteera Mutrikuko jaietara izaten zen. Baina berari gurasoek ez omen zioten utzi lehen aldian. Oraindik ez du ulertzen zergatik, izan ere gurasoek nahikoa askatasun ematen zioten. Inguruko beste jai batzuetara ere joaten ziren. Gaztetako ilusioa. Elgoibarren parranda egindakoan gurasoek herrian zuten pisuan geratzen zen lotan. Hurrengo goizean 11etarako mezara joan behar.</p>

6. Meza-laguntzaile izateko zain

- **Erref:** EGB-076/010
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:15:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Igandero goizeko 11etako mezara. Meza-laguntzaile lanetan ere ibili zen urte askoan; 100 pezeta ematen zizkieten. Diru harekin kas-a eta "pazientziak" (gailetak) erosten zituzten. Edatekoa auzoko elkartean erosten zuten eta gailetak amamak auzoan izan zuen bentan. Bi meza-laguntzaile egoten ziren. Behin adin batera iritsitakoan gazteagoek hartzen zuten erreleboa. Txanda iristeko zain egoten ziren. Gabonetan jaiotza ipintzeko goroldio bila ere joaten ziren mendi aldera.</p>

7. Inguruko gazteak Joxin parrokoarekin Madrilera

- **Erref:** EGB-076/011
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:15:06. **Bukatu:** 00:17:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Benantzio parrokoa. Aurretik Joxin izeneko parroko gazte bat egon zen. Harekin Madrilera joan ziren Aiastiako (San Migeleko) eta Idotorbeko (San Pedroko) gazte guztiak, 5-6 urteko umeak ere bai tartean. Berarentzat Donostiara joan eta hango argiak ikustea gauza handia baldin bazen, Madrilera New Yorkera joatea bezalakoa izan omen zen.

8. Aiastia (San Migel) eta Idotorbe (San Pedro) auzokoen arteko pikea

- **Erref:** EGB-076/013
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:17:46. **Bukatu:** 00:20:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Idotorbe (San Pedro) auzokoekin beti izan dute harremana. Umetan, gainera, pike tontoak izaten dituztela dio: zein auzo zegoen altuago, zein baserri zegoen altuago, bateko eta besteko frontoien arteko konparaketa, bat... Elgoibarko gainontzeko auzoekin ez zuten ia harremanik. Kristau Ikasbideko umeak Idotorben batzen ziren, eta eurak mendiz mendi joaten ziren.

9. Umetatik baloiari lotuta; Errealeko infantiletara jauzia

- **Erref:** EGB-076/014
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:20:02. **Bukatu:** 00:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Umetako oroitzapen onenak baloiari lotutakoak direla dio. Askotan bakar-

bakarrik ibiltzen zen baloiarekin jolasean. 12-13 urterekin Elgoibarren hasi zen jokatzeko federatuta eta 14rekin Errealera eraman zuten, infantiletara. Ander Arantzeta eta Iker Ajuriagerra eibartarrekin batera joaten zen entrenamenduetara, astean bi aldiz.

10. Bihotzeko arazoak eta Espainiako selekzioaren deia

- **Erref:** EGB-076/015
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:25:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Umetan bihotzetik operatu zuten. Eta arazo horren ondorioz, Errealean infantiletan zebilela, medikuek esan zioten ezingo zela profesional mailara pasa. Kolpe handia izan zen. Berriz Elgoibarrera itzuli zen, kadeteetara. Han zebilela, Espainiako selekzioak deitu zion 15 urtez azpikoekin jokatzeko. Wembleyn jokatu zuten Ingalaterraren kontra. Izugarrizko esperientzia izan zen. Prentsari esker albistea zabaldu zen eta Erreala berriz harremanetan jarri zen berarekin. Berriz azterketa medikuak egin eta ordukoan ondo atera zen.

11. Espainiako selekzioarekin Wembleyn jokatzeko, 15 urtez azpikoetan

- **Erref:** EGB-076/016
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:25:15. **Bukatu:** 00:27:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Bi esperientziak izan ziren onak: 14 urterekin Errealera joatea eta Wembleyn jokatzeko Espainiako selekzioarekin, baina azken hori izugarria zen. Gainera, kontuan izan behar da berak Elgoibarren jokatzeko zuela orduan. Selekzioan Eibarko Ander Arantzeta jokatu zuen defentsa postuan, berarekin batera. Iker Casillasen debuta ere orduan izan omen zen, baina Errealeko atezainaren ordezkotzat gisa.

12. Gora igotzeko uste gabe futbolean

- **Erref:** EGB-076/017
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:27:12. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

12 urterekin Elgoibar Taldean futboleko hasi zenean, ez zuen buruan Errealera joatea. Halakorik gerta zitekeenik burutik pasa ere ez zitzaion egiten. Lehen desberdinak ziren kontuak. Orain helburu horrekin ibiltzen dira gaztetxoak.

13. Futbol zelaietan hastean futbolarekin zuen gozamina galdu

- **Erref:** EGB-076/018
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Futboleko auzoan edo ikastolan aritzea gustatzen zitzaion gehien. Futbol zelaian sartutakoan gauzak aldatu egiten dira, han entrenatzaile bat duzulako, presioa... 14 urtetik aurrera jada ez zuela futbolarekin dibertsio handirik lortu dio.

14. Futboleko oinetakoetan aldaketa handirik ez

- **Erref:** EGB-076/020
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:30:07. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Hogei urtean futboleko materiala ez dela hainbeste aldatu uste du. Nahiz eta aldaketak egon diren, oraindik ere garai bateko Adidas markako "World Cup" oinetakoak nahi izaten omen dituzten futbolariak.

15. Errealarekin debuta Athletic de Madrid-en kontra

- **Erref:** EGB-076/021
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:32:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

19 urterekin Errealarekin debutatu zuen. Clemente zen orduko entrenatzailea. Athletic de Madrid-en kontra jokatu zuten. Berak zaindu beharreko jokalaria holandarrarekin tira-bira batzuk izan zituen eta 70. minutuan txartel gorriarekin kalera bota zuten.

16. Errealean jokatzearen erantzukizunak gainezka egin zion

- **Erref:** EGB-076/022
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:32:53. **Bukatu:** 00:35:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Errealarekin jokatzeko hasi zen lehen urtean partida gehienetan jokatu zuen titular moduan. 3-4 urte egin zituen guztira eta pixkanaka gero eta gutxiago jokatzeko zuen. Ilusioa galdu zuen. Ez dio errua inori botatzeko. Bera baino hobeak zeudelako erabakitzen zela jokatu gabe uste du. Lehenengo maila handiegi geratu zitzaioala eta gazteegi harrapatu zuela uste du. Erantzukizun handia zen. Prentsa ondo jokatzeko zuenean bakarrik jarraitzen zuen.

17. Rayo Vallecanora, 2.B mailara; Madrilen kezka berriak

- **Erref:** EGB-076/024
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:36:37. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Errealak utzita Aljiciras-en jokatu ostean, Madrilera joan zen Rayo Vallecanon jokatzera, bigarren B mailan. Sei hilabetean 1go mailatik 2.Bra pasa zen eta aldaketa handia izan arren, ondo eraman zuela dio. Madrilera joateak begiak ireki zizkion eta beste gauza batzuetan hasi zen: antzerkia ikasi, irakurri... Futbolaz pentsatzeari utzi zion. Baina 32 urtera arte jarraitu zuen futboleko. Zein taldetan jokatu zuen. Lemoara joan zenean pilak jarri beharra zuela ikusi zuen. Eta futboleko zentratu zen berriro.

18. Futbolaren amaiera Beasainen; monologoetara eta telebistara jauzia

- **Erref:** EGB-076/025
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:39:30. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Azken futbol taldea Beasain izan zuen. Ordurako monologoak egiten hasita zegoen, eta bi lanak ez ziren oso bateragarriak. Horregatik taldearekin hitz egin zuen aurrez. Han zebilela, telebistara jauzi egiteko aukera sortu zitzaion eta futbola utzi egin zuen. Futbolari entzat ez da erraza izaten futbola uztea, baina berak erraz egin zuen, gehiago gustatzen zitzaion lan betar pasa zelako.

19. Arconada zen bere idoloa

- **Erref:** EGB-076/027
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:42:12. **Bukatu:** 00:43:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Umetan Arconada zen bere idoloa eta atezain izatea nahi izaten zuen. Errealaren garaipen onenak ez zituen ezagutu, baina Arconadaren geldialdiak gogoan ditu.

20. Madrilen antzerki-eskolan hasi zen

- **Erref:** EGB-076/028
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:43:19. **Bukatu:** 00:45:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

24 urte ingururekin Madrilera joan zenean lehentasunak aldatzen hasi zitzaizkion, baina bizimodua ateratzeko futbolaren beharra zuela konturatu zen eta berriz futboleko zentratu zen. Umetan bertsoak idazten eta trikitia jotzen ibili bazen ere, ez zuen bestelako loturarik kulturarekin. Berarentzat aldaketa handia izan zen irakurtzen eta antzerki-eskolan hasia. Obra bat prestatu zuten eta ikasturte bukaeran antzeztu egin zuten. Frantses baten papera tokatu zitzaion.

21. Gitarra jotzen hasiera; heavy-tik pop-era aldaketa

- **Erref:** EGB-076/029
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:45:44. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Errealean ibili zen azken urtean gitarra elektrikoa jotzen ikasten hasi zen. Musika heavy-a gustatzen zitzaiolako hasi zen, baina pixkanaka pop-era hurbildu zen. Madrilén zegoela, Mikel Urdangarinen kontzertu batera joan zen eta kontzertu bukaeran hura agurtzera joan zen. Harreman hartatik etorri zen musika estilo berrietarako zaletasuna. Aurretik Su ta Gar, Iron Maiden eta Metalica entzuten zituen.

22. Gitarrarekin kantak sortzen hasi zen

- **Erref:** EGB-076/030
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:49:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Akorde batzuk elkartuta kantak sortzeko gaitasuna zuela konturatu zen. 14 kanta inguru prestatu zituen jende aurrean jotzeko ekin zion. 2010ean eman zuen lehen kontzertua. Kantak sortzearen inguruko kontuak.

23. Presio eta erantzukizun desberdina futbol zelaian eta agertokian

- **Erref:** EGB-076/031
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:50:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kultura » Musika
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Berarentzat ez da presio eta erantzukizun bera sortzen futbol zelaian jokatzen edo taula gainean kantuan edo monologoak egiten. Futbolean sufritu egiten zuen presioa handiegia zelako. Taula gainean, berriz, neurriko presioa eta erantzukizuna sentitzen du eta gozatu egiten du.

24. Monologoaren hasiera

- **Erref:** EGB-076/033
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:51:30. **Bukatu:** 00:53:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Monologoekin nola hasi zen. Kontzertu batean, aurrez prestatu gabe, kanten inguruko azalpenak ematen hasi zen era barregarrian eta jendeari gustatu egin zitzaizkion konturatu zen. Hurrengo kontzertuan gauza bera egin zuen, baina gehiago esajeratuz. Orduan konturatu zen jendea gusturago zegoela kontuak entzuten kanta entzuten baino. Lehenbiziko monologoan futbol-jokalari gisa bizitako bizipenak kontatzen ditu eta erraz sortu zuen. Bigarren monologoa idazten ari dela, baina ez dela erraza dio.

25. Kanta eta monologoak hasieran gaztelan

- **Erref:** EGB-076/034
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:53:18. **Bukatu:** 00:55:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Van Poppel taldearekin disko bat atera zuen eta kanta gaztelan daude. Garai hartan Zamoran jokatzen zuen eta neska-laguna bertakoa zuenez, naturalki horrela atera zitzaizkion. Baina euskarazko kanta ere sortzen ari da. Lehenengo monologoa ere gaztelan sortu zuen, gaztelan bizitako egoeren berri ematen zuelako eta euskaraz umorerik egin ezinaren beldur. Gerora euskaraz ere hasi zen, umorea berdin-berdin egin zitekeela ikusirik.

26. Bere euskaran egindako monologoetan erosoen

- **Erref:** EGB-076/035
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:55:37. **Bukatu:** 00:56:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Bizkaiko herrietan egiten omen ditu erosoen monologoak bere etxeko euskara erabili dezakeelako. Euskara batuak baino naturaltasun handiagoa ematen duela uste du. Gainontzeko herrietan ere erabiltzen du Elgoibarko euskara, baina beti euskara batura gehiago hurbiltzen saiatzen da eta ez da hain eroso sentitzen.

27. Telebistan euskara batura jauzia

- **Erref:** EGB-076/037
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:57:56. **Bukatu:** 00:59:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara batua ikastolan ikasi zuen, baina gero ez du inorekin erabili izan. Orain Etb-n lanean hasi da eta orduan ikasitako aditzak ondo datozkiola dio. Zuzena ikusten du telebista publikoan batuan egitea. Telebistan bere helburuetako bat da euskara batuan bere euskalkian bezain eroso eta natural sentitzea. Bere monologoetan berak erabakitzen du herri bakoitzean ze euskara erabili.

28. `Tumatxak´ saioko aurkezle

- **Erref:** EGB-076/039
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:00:56. **Bukatu:** 01:03:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

<p>Orio Produkzioak-etik deitu zioten telebistarako `Tumatxak´ saioka egiteko. Ez zuen pentsatzen telebistara jauzirik egingo zuenik. `Tumatxak´saioko elkarriketak egin ahal izatea zorte handia izan zela uste du. Gauza guztietatik Niko Etxartekin abestea da gehien gustatu zitzaiona.</p>

29. `Hizkamizka´ lehiaketako aurkezle

- **Erref:** EGB-076/040
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:03:31. **Bukatu:** 01:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

<p>`Hizkamizka´ lehiaketa aurkezteko casting-erako deitu zioten eta `Tumatxak´ saioarekin ari zenez, oso lasai joan omen zen. Hasier Etxeberrria zen saioaren arduraduna. Urte eta erdiz aurkeztu zuen lehiaketa. Orduan lan egin zuen lehenengo aldiz plato batean.</p>

30. `Herri txiki infernu handi´ saioa

- **Erref:** EGB-076/042
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:05:17. **Bukatu:** 01:08:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

`Herri txiki infernu handi´ saioarekin diharduela kontatzen du. Aurreko beste bi saioetan gustura ibili zen arren, saio honekin lortu duela naturaltasunik handiena uste du. Saioan bizi izan duen esperientzia. Herri desberdinetako pertsona anonimoak protagonista bihurtzeak hunkitu egiten omen du. Aurrelan bat egin behar izaten da jendea kamera aurrean azaltzeko konbentzitzeko.

31. Etorkizuna monologoetan

- **Erref:** EGB-076/043
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:08:16. **Bukatu:** 01:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Telebista gustatzen zaio baina etorkizuna monologoetan ikusten du. `Hiru´ izeneko antzezlanean ere badiharduela dio, Txalo Produksioak deituta. Badaezpada ez du baztertzen inoiz burutik pasa izan zaion kirol esatari lana.

32. Euskararen ibilbidea

- **Erref:** EGB-076/045
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:10:25. **Bukatu:** 01:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Euskara » Euskararen egoera

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Futbola gaztelaniaz bizi izan du, bai kanpoan eta baita Euskal Herrian ere. Errealean erabiltzen zuen euskara gehixeago, baina han ere entrenatzaileak gaztelaniaz egin behar, denek ulertzeko. Aiestia (San Migel) auzoan bizi izan du euskara naturaltasunez. Orain euskararantz hurbildu da berriz ere oraingo lanari esker.

33. Aiestia (San Migel) auzoan hika

- **Erref:** EGB-076/046
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:12:12. **Bukatu:** 01:14:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Aiestia (San Migel) auzoan hika hitz egiten du. Handik kanpora oso gutxi. Elgoibarren kaleko gazteek orokorrean ez dakitela hika uste du. Auzoan ere ez daki gazteagoek ikasiko ote duten, nahiz eta beraiek hika hitz egiten dieten. Auzoan, hika hitz egiteaz aparte, espresioak, tonua eta beste hainbat gauza ere aldatzen direla uste du.</p>

34. Zaharragoi eta neskei ez die hika egin izan

- **Erref:** EGB-076/047
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:14:17. **Bukatu:** 01:15:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Aiestia auzora joaten denean hango lehengusu eta lagunekin hika hitz egiten du automatikoki. Zaharragoi ez die inoiz hika hitz egin eta neskei ere ez. Halaxe jaso dute ohitura, izan ere aititak berari hika hitz egiten dio, baina bere arrebari zuka. Amak bere ahizpekin hika hitz egiten omen du.</p>

35. Hikaren gorabeherak

- **Erref:** EGB-076/048
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:15:34. **Bukatu:** 01:16:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Auzotik kanpora ez du asko egin izan hika. Gainera, hika asko hitz egiten den herrietan gertatu izan zaio bertakoen hika egiten hastea, eta hori ez du gustuko.</p>

36. Sare sozialekin harremana

- **Erref:** EGB-076/051
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 01:17:30. **Bukatu:** 01:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Sare sozialak (facebook eta twitter) propaganda egiteko erabiltzen ditu batez ere, baina tarteka bere konturen bat ere kontaktzen du jarraitzaileentzat. Hala ere, gero eta gehiago kostatzen omen zaio ezagutzen ez duen jendeari bere biziaren berri ematea. Facebook gehiago erabiltzen du kontuak kontatzeko; twitter, berriz, bere emanaldien berri emateko soilik. Bloga ere badu, baina alde batera lagata omen dauka, ez duelako asmatzen bertan gauzak nola azaldu naturaltasunez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com